Astigarragako Udala

**Idazkaritza • Secretaria**
idazkaritza@astigarraga.net

# TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2016ICGO0003
**Eguna:** 2016-06-20
**Ordua:** 12:00 – 12:25
**Tokia:** Alkatetza

**Bertaratuak**

- Jesus Mª Santos Anabitarte........EAJ-PNV
- Andoni Gartzia Arruabarrena........EHBildu
- Ione Olatziregi Mendiorotz........EHBildu

**Bertaratu ez direnak**

- Zorione Etxezarraga Ortuondo........EAJ-PNV
- Mikel Durán Gonzalo........Euskadiko Sozialistak

**Idazkaria**

- Kontxi Urdanpilleta Santamaría

**Aztergaiak**

| EGUNEKO AZTERGAIAK | Zk / Nº | ORDEN DEL DIA |
|---|---|---|
| **2016ko maiatzaren 4ko aktaren onarpena.** | | Aprobación del acta de 4 de mayo de 2016. |
| **Stua, S.A. Borondatezko errepartzelazioa. Behin betiko onarpena.** | 2 | Stua, S.A. Reparcelación voluntaria. Aprobación definitiva. |
| **Astigarraga-Zarkumendegi bidego-rriaren aldeketa proiektua onartzea eta kontratu-aldaketa espedientearekin jarraitzea. .** | 3 | Aprobar el proyecto modificado del bidegorri Astigarraga-Zarkumendegi y continuar con el expediente de contratación. |
| **Astigarraga-Zarkumendegi bidego-rriaren proiektu osagarria onartzea** | 4 | Aprobar el proyecto complementario del bidegorri Astigarraga-Zarkumendegi. |
| **Astigarragako Herri Eskolako guraso elkartearekin hitzarmena onartzea.** | 5 | Aprobar el convenio con la asociación de padres de la Herri Eskola de Astigarraga. |
| **Aiztondo Abesbatzarekin hitzarmena onartzea.** | 6 | Aprobar el convenio con Aiztondo Abesbatza. |
| **Norberto Almandoz Musika Eskolarekin hitzarmena onartzea.** | 7 | Aprobar el convenio con Norberto Almandoz Musika Eskola. |

| | | |
|---|---|---|
| **Astigarragako Herri Eskolarekin 2015/2016 eskola kirolari buruzko hitzarmena onartzea.** | **8** | Aprobar el convenio con Astigarragako Herri Eskola relativo al deporte escolar 2015/2016. |
| **Astigarragako Herri Eskolarekin 2015/2016 igeriketa kanpaina eskolarrari buruzko hitzarmena onartzea.** | **9** | Aprobar el convenio con Astigarragako Herri Eskola para la campaña de natación escolar 2015/2016. |
| **Mundarro Elkartearekin urteko kirol jarduera aurrera eramaten laguntzeko hitzarmena onartzea.** | **10** | Aprobar el convenio con Mundarro Elkartea para apoyo a la actividad deportiva anual. |
| **Marisa Garaño etxe tutelatuetako etxez-etxeko laguntza kontratuaren aldaketa.** | **11** | Modificación del contrato de ayuda domiciliaria en las viviendas tuteladas Marisa Garaño. |
| **Astigarraga-Zarkumendegi bidegorriko obra osagarrien gastua onartzea eta kontratazio prozedura martxan jartzea.** | **12** | Aprobación del gasto de las obras complementarias del bidegorri Astigarraga-Zarkumendegi y dar inicio al expediente de contratación. |
| **Hainbat gastu onartzeko kontu-hartzailearen proposamena onartzea.** | **13** | Aprobación de la propuesta del interventor para la aprobación de diversos gastos. |
| **Informazio, galdera eta eskariak.** | **14** | Información, ruegos y preguntas. |

**Esan-eginak eta erabakiak**

**1.- 2016ko maiatzaren 4ko aktaren onarpena.**

Andoni zinegotziak hartu du hitza eta adierazi galdera eta erreguetako “f” (jaietako txosna) eta “h” (etxe hutsen programa) ataletan Ione zinegotziaren izena “I”rekin idatzi ordez “J”tarekin idatzi dela.

Aldaketa hori egin ondoren, akta aho batez onartu da.

**1.- Aprobación del acta de 4 de mayo de 2016.**

Toma la palabra el concejal Andoni y señala que en los apartados “f” (txosna para fiestas) y “h” (programa de viviendas vacías el nombre de la concejala Ione se ha escrito con “J” en lugar de con “I”.

Realizada esta modificación, se aprueba el acta por unanimidad.

**2.- Stua, S.A. Borondatezko errepartzelazioa. Behin betiko onarpena.**

Hirigintza batzordeko irizpena aurkeztu du alkateak, onartua izan dadin:

***Lehena.-*** Jesus Gascak Stua SAren eta

**2.- Stua, S.A. Reparcelación voluntaria. Aprobación definitiva.**

El alcalde presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la comisión de urbanismo:

***Primero.-*** Estimar la totalidad de las

Minusmore SLren izenean eta haiek ordezkatuz birpartzelazio-proiektuaren hasierako onarpenari egindako alegazio guztiak baiestea, **laugarrena izan ezik**, ibai-ibilguren sistema orokorrari atxikitako lurren desjabetzea dela-eta sozietateek izan ditzaketen eskubide ekonomikoei uko egitea Jabetzaren Erregistroan bermatu behar baita.

***Bigarrena.-*** Bere garaian zergaren, instalazioen eta obren kontzeptupean ordaindutako zenbatekoaren konpentsazioa onartzea. Martxoaren 28ko Hirigintzako delegatuaren 324/2007 Dekretuak emandako lizentziarengatik ordaindu zen zenbatekoa, eta ez zen gauzatu.

***Hirugarrena.-*** STUA SA 9-10 lurzatiaren 3. azpieremuaren borondatezko birpartzelazio-proiektua onartzea honako baldintza hauekin:

1.- Udalari dagokion eraikigarritasunaren lagapenaren % 15ari dagokion zenbateko guztiaren ordainketa ematen den lehenengo eraikitze-lizentziaren emakidarekin batera egingo da.

2.- Ematen den eraikitze-lizentzian baldintza gisa ezarriko da tokiko bide-sistemarako izango diren azaleraren 843,91 m2-ak **urbanizatuta** laga beharko zaizkiola Astigarragako Udalari.

3.- Ibai-ibilguen sistema orokorrera atxikitako Minusmore eta Stua sozietateen jabetzako lurzati osoak honako baldintza hau bete beharko du:

"*Urumea ibaia bideratzeko eta hobetzeko edozein proiektuk eraginpean hartutako azalera doan lagako zaio Astigarragako Udalari edota jarduneko administrazioari, balio justuaren ordainketari uko eginez. Administrazioak ofizialki eskatutakoan egingo da lagapena*"

alegaciones formuladas por Jesus Gasca en nombre y representación de Stua S.A y Minusmore, a la aprobación inicial del Proyecto de Reparcelación **salvo la cuarta**, debido a que la renuncia de los derechos económicos que les pudiera corresponder por la expropiación de los terrenos afectos al Sistema General de cauces fluviales debe garantizarse en el Registro de la propiedad.

***Segundo.-*** Admitir la compensación de la cuantía abonada en su día en concepto de Impuesto, Instalaciones y Obras por la concesión de la licencia otorgada por Decreto del Delegado de Urbanismo 324/2007, de fecha 28 de marzo, y que no fue materializada.

***Tercero.-*** Aprobar definitivamente el Proyecto de Reparcelación voluntaria del subámbito 3 parcela 9-10 STUA S.A, con las siguientes condiciones:

1.- Que el abono de la totalidad de la cuantía correspondiente al 15% de cesión de la edificabilidad urbanística que corresponde al Ayuntamiento se realizará con la concesión de la primera licencia de edificación que se otorgue.

2.- En la licencia de edificación que se conceda se establecerá la condición de que los 843,91 m2 de superficie destinados a sistema local viario, deberán de cederse al Ayuntamiento de Astigarraga **urbanizados**.

3.- La totalidad de la parcela propiedad de Minusmore y Stua que está afectada por el Sistema General de cauces fluviales, deberá de cumplir la siguiente condición:

"*La superficie que quede afectada por cualquier proyecto destinado al encauzamiento y mejora del río Urumea, será cedida gratuitamente bien al Ayuntamiento de Astigarraga y/o a la administración actuante, renunciándose*

*al abono del justiprecio. La cesión se realizará una vez sea requerida oficialmente por la Administración "*

Adierazitakoa betetzeko, baldintza hau **alboko ohar bidez adierazi beharko da Jabetzaren Erregistroan**.

Con la finalidad de dar cumplimiento a lo señalado, esta condición **deberá de reflejarse mediante nota marginal en el Registro de la Propiedad**.

***Laugarrena.-*** Birpartzelazio-proiektuak eraginpean hartutako jabeei jakinaraztea Astigarragako Udalak ez duela Bidebitarte poligonoko 9-10 partzelan pabiloi berria eraikitzeko obra-lizentziarik emango ez bada bermatzen aurreko akordioan adierazitako baldintza inskribatuko dela, eskritura publikoan edo jabetzaren erregistratzaileak eskatzen duen beste edozein dokumentu bidez.

***Cuarto.-*** Comunicar a los propietarios afectados por el Proyecto de Reparcelación, que el Ayuntamiento de Astigarraga no concederé la licencia de obras de edificación del pabellón en la parcela 9-10 del polígono Bidebitarte, si no se garantiza, bien en escritura pública o por cualquier otro documento que sea exigido por el Registrador de la propiedad, la inscripción de la condición señalada en el acuerdo anterior.

***Bosgarrena.***- Erabaki hau Stua SA 9-10 lurzatiko 3. azpieremuaren jabeei jakinaraztea eta erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

***Quinto.-*** Notificar el presente acuerdo a los propietarios del subámbito 3 parcela 9-10 Stua S.A, y publicar el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Jarraian irizpena bozkatzera ekin zaio, eta aho batez onartu da.

A continuación se procede a votar el dictamen, el cual se aprueba por unanimidad.

**3.- Astigarraga-Zarkumendegi bidegorriaren aldaketa proiektua onartzea eta kontratua aldatzeko espedientearekin jarraitzea.**

**3.- Aprobar el proyecto modificado del bidegorri Astigarraga-Zarkumendegi y continuar con el expediente de modifición.**

Udal-idazkariak azaldu du gai-zerrendan kontratazio prozedura martxan jartzea onartu behar dela jarri arren, hori akats baten ondorio izan dela, berez orain dagokiona kontratua aldatzeko espedientearekin jarraitzea baita.

La secretaria municipal aclara que si bien en la convocatoria figura que hay que dar inicio al expediente de contratación, se debe a una errata, ya que procede continuar con el expediente de modificación del contrato.

Ondoren, alkateak Obra eta zerbitzu batzordeko irizpena aurkeztu da, onartua izan dadin:

A continuación el alcalde presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la comisión de obras y servicios:

Astigarraga-Zarkumendegi bidegorriaren aldaketa proiektua onartzea, Gipuzkoako Foru Aldundiak ebatzitakoari baldintzatua, eta kontratua aldatzeko prozedurarekin jarraitzea.

Aprobar el proyecto modificado del bidegorri Astigarraga-Zarkumendegi, condicionado a la resolución de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y continuar con el expediente de modificación de contrato.

Jarraian, irizpena bozkatzera ekin zaio, eta aho batez onartu da.

Acto seguido procede a votar el dictamen, el cual se aprueba por unanimidad.

**4.- Astigarraga-Zarkumendegi bidegorriaren proiektu osagarria onartzea..**

**4.- Aprobar el proyecto complementario del bidegorri Astigarraga-Zarkumendegi.**

Udal-idazkariak azaldu du gai-zerrendan kontratazio prozedura martxan jartzea ere onartu behar dela jarri arren, hori gastua onartu aurretik ezin dela egin, eta beraz, kontratazio espedientearen onarpena 12. puntuan egingo dela.

La secretaria municipal aclara que si bien en la convocatoria figura que también hay que dar inicio al expediente de contratación, ello no se puede llevar a cabo antes de la aprobación del gasto, por lo que se aprobará en el punto 12.

Ondoren, alkateak Obra eta zerbitzu batzordeko irizpena aurkeztu da, onartua izan dadin:

Astigarraga-Zarkumendegi bidegorriaren proiektu osagarria onartzea.

A continuación el alcalde presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la comisión de obras y servicios:

> Aprobar el proyecto complementario del bidegorri Astigarraga-Zarkumendegi.

Jarraian irizpena bozkatzera ekin zaio, eta aho batez onartu da.

Acto seguido se procede a votar el dictamen, el cual se aprueba por unanimidad.

**5.- Astigarragako Herri Eskolako guraso elkartearekin hitzarmena onartzea.**

**5.- Aprobar el convenio con la asociación de padres de la Herri Eskola de Astigarraga.**

Kultura eta euskara batzordeko irizpena aurkeztu da, onartua izan dadin:

> Herri Eskolako guraso elkartearekin hitzarmena sinatzea eta horren baitan 7.800,00 euroko laguntza ematea bi xederako: eskola orduz kanpo kiroletakoak ez diren jarduerak eta guraso eskola.

Se presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la comisión de cultura y euskara:

> Firmar el convenio con la asociación de padres de la Herri Eskola y conceder la ayuda de 7.800,00 euros para el siguiente fin: actividades fuera del horario escolar que no sean deportivas y escuela de padres.

Jarraian irizpena bozkatzera ekin zaio, eta aho batez onartu da.

A continuación se procede a votar el dictamen, el cual se aprueba por unanimidad.

**6.- Aiztondo Abesbatzarekin hitzarmena onartzea.**

**6.- Aprobar el convenio con Aiztondo Abesbatza.**

Aiztondo Abesbatzaren zuzendaria Ione zinegotziaren ama denez, Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendua eta Araubide

Dado que la directora de Coro Aiztondo es madre de la concejala Ione, y que de acuerdo con lo dispuesto en el Real Decreto 2568/1986

Juridikoaren araudia onartzen duen 2568/1986 Errege Dekretuari eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeari jarraiki zinegotzi horrek ezin du eztabaida eta bozketan parte hartu. Beraz, zinegotzi hori gabe quorum-ik ez dagoenez, gaia hurrengo batzorde batetarako utzi da.

por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales y la Ley 30/1992 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, ésta no puede estar presente en el debate, ni votar; y que sin ella no hay quorum suficiente, se deja el tema para la siguiente comisión.

**7.- Norberto Almandoz Musika Eskolarekin hitzarmena onartzea.**

Kultura eta euskara batzordeko irizpena aurkeztu da, onartua izan dadin:

> Norberto Almandoz Musika Eskolarekin hitzarmena sinatzea eta udal aurrekontuko kontu sailean aurreikusitako 95.574,00 euroko laguntza ematea.

Jarraian irizpena bozkatzera ekin zaio, eta aho batez onartu da.

**7.- Aprobar el convenio con Norberto Almandoz Musika Eskola.**

Se presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la comisión de cultura y euskara:

> Firmar el convenio con Norberto Almandoz Musika Eskola y conceder la ayuda de 95.574,00 euros prevista en la partida presupuestaria correspondiente.

A continuación se procede a votar el dictamen, el cual se aprueba por unanimidad.

**8.- Astigarragako Herri Eskolarekin 2015/2016 eskola kirolari buruzko hitzarmena onartzea.**

Kirolak, gardentasuna eta partehartze batzordeko irizpena aurkeztu da, onartua izan dadin:

> Lehena.- Astigarragako Herri Eskolarekin, 2015/2016 ikasturteko eskola kirola jarduera aurrera eramaten laguntzeko, lankidetza hitzarmena ontzat ematea.
>
> Bigarrena.- Alkatea baimentzea beharrezkoak diren agiri guztiak sinatzeko.

Jarraian irizpena bozkatzera ekin zaio, eta aho batez onartu da.

**8.- Aprobar el convenio con Astigarragako Herri Eskola relativo al deporte escolar 2015/2016.**

Se presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la comisión de Deportes, transparencia y participación:

> Primera.- Aceptar el convenio de colaboración con Astigarragako Herri Eskola, en apoyo a la actividad de deporte escolar que lleva a cabo durante el curso 2015/2016.
>
> Segunda.- Autorizar al alcalde para la firma de todos los documentos necesarios.

A continuación se procede a votar el dictamen, el cual se aprueba por unanimidad.

**9.- Astigarragako Herri Eskolarekin 2015/2016 igeriketa kanpaina eskolarrari buruzko hitzarmena onartzea.**

Kirolak, gardentasuna eta partehartze batzordeko irizpena aurkeztu da, onartua izan dadin:

Lehena.- Astigarragako Herri Eskolarekin, 2015/2016 ikasturteko igeriketa kanpaina eskolarra aurrera eramaten laguntzeko, lankidetza hitzarmena ontzat ematea.

Bigarrena.- Alkatea baimentzea beharrezkoak diren agiri guztiak sinatzeko.

Andoni zinegotziak igeriketa kanpaina non egiten den galdetu du, Ione zinegotziak erantzunez Egiako Zuhazti kiroldegian egiten dela.

Jarraian irizpena bozkatzera ekin zaio, eta aho batez onartu da.

**9.- Aprobar el convenio con Astigarragako Herri Eskola para la campaña de natación escolar 2015/2016.**

Se presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la comisión de Deportes, transparencia y participación:

Primera.- Aceptar el convenio de colaboración con Astigarragako Herri Eskola, en apoyo a la campaña de natación escolar que lleva a cabo durante el curso 2015/2016,

Segunda.- Autorizar al alcalde para la firma de todos los documentos necesarios.

El concejal Andoni pregunta donde se realizará la campaña, contestándole la concejala Ione que en el polideportivo Zuhazti (Egia).

A continuación se procede a votar el dictamen, el cual se aprueba por unanimidad.

**10.- Mundarro Elkartearekin urteko kirol jarduera aurrera eramaten laguntzeko hitzarmena onartzea.**

Kirolak, gardentasuna eta partehartze batzordeko irizpena aurkeztu da, onartua izan dadin:

Lehena.- Mundarro Elkartearekin, bere urteko kirol jarduera aurrera eramaten laguntzeko, lankidetza hitzarmena ontzat ematea.

Bigarrena.- Alkatea baimentzea beharrezkoak diren agiri guztiak sinatzeko.

Jarraian irizpena bozkatzera ekin zaio, eta aho batez onartu da.

**10.- Aprobar el convenio con Mundarro Elkartea para apoyo a la actividad deportiva anual.**

Se presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la comisión de Deportes, transparencia y participación:

Primera.- Aceptar el convenio de colaboración con Mundarro Elkartea, en apoyo a la actividad deportiva anual que lleva a cabo.

Segunda.- Autorizar al alcalde para la firma de todos los documentos necesarios.

A continuación se procede a votar el dictamen, el cual se aprueba por unanimidad.

**11.- Marisa Garaño etxe tutelatuetako etxez-etxeko laguntza kontratuaren aldaketa.**

Gizarte Zerbitzuak, giza eskubideak eta enplegua batzordeko irizpena aurkeztu da, onartua izan dadin:

Lehena.- Etxez etxeko laguntzarako zerbitzu-kontratuaren zerbitzu-orduak astean 31,5 ordutan murrizteko, kontratua aldatzeko espedienteari hasiera ematea.

Bigarrena.- GARBIALDI, S.A. - FUNDACION INTEGRANDO enpresari 10 laguneko epea ematea, egokitzat dituen alegazioa aurkezteko.

Andoni zinegotziak hartu du hitza eta aurreratu du, oraingoz, abstenitu egingo direla, aurretik langileekin hitz egin behar delako, eta beraiekin egon nahi dutelako. Baina espedientea aurrera doan bitartean, erabakiko dutela gaiaren inguruko beste akordioetan zer egin.

Jarraian irizpena bozkatzera ekin zaio, eta EHBillduko 2 kideen abstentzioarekin eta EAJ-PNVren aldeko botoarekin onartu da.

**11.- Modificación del contrato de ayuda domiciliaria en las viviendas tuteladas Marisa Garaño.**

Se presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la comisión de Servicios Sociales, derechos humanos y empleo:

Primera.- Incoar el expediente de modificación del contrato de ayuda domiciliaria para reducir en 31,5 horas semanales, las horas de servicio.

Segunda.- Conceder a la empresa GARBIALDI, S.A. - FUNDACION INTEGRANDO el plazo de 10 días naturales para que presente las alegaciones que estime pertinentes.

Toma la palabra el concejal Andoni y señala que en esta ocasión se van a abstener, porque primero hay que hablar con las trabajadoras, y que quieren estar con ellas. Pero que según como se desarrolle el expediente decidirán que hacer en los demás acuerdos a adoptar.

A continuación se procede a votar el dictamen, el cual se aprueba con un voto a favor de EAJ-PNV y las 2 abstenciones de EHBIldu.

**12.- Astigarraga-Zarkumendegi bidegorriko obra osagarrien gastua onartzea.**

Udal-idazkariak azaldu du gai-zerrendako puntu honetan ez adierazi arren, kontratazio prozedura martxan jartzea ere onartu behar dela.

Jarraian, alkateak Ogasun eta ondare batzordeko irizpena aurkeztu da, onartua izan dadin:

160.815,89 euroko gastua onartzea bidegorriaren obra osagarriak lizitatzeko, baita dagokion lizitazioari hasiera emateko kontratazio-espedientea onartzea ere.

**12.- Aprobación del gasto de las obras complementarias del bidegorri Astigarraga-Zarkumendegi.**

La secretaria municipal aclara que si bien en la convocatoria no figura, en este punto también hay que aprobar que dar inicio al expediente de contratación

A continuación el alcalde presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la comisión de Hacienda y patrimonio:

Proceder a la aprobación del gasto de importe 160.815,89 euros para la licitación de las obras complementarias del Bidegorri, así como la aprobación del expediente de contratación

para dar inicio a la correspondiente licitación.

Andoni zinegotziak kontratuaziorako eskaintza zein enpresari egingo zaien galdetu du, eta udal-idazkariak argitu dio, obra nagusian parte hartu zuten 11 enpresei egingo zaiela.

El concejal Andoni pregunta a que empresas se va a invitar, respondiéndole la secretaria municipal que se va a invitar a las 11 que tomaron parte en obra principal.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta aho batez onartu da bai gastua onartzea, bai kontratazio espedientea martxan jartzea.

A continuación se procede a votar, aprobándose por unanimidad tanto la el gasto como el inicio del expediente de contratación.

**13.- Hainbat gastu onartzeko kontu-hartzailearen proposamena onartzea.**

**13.- Aprobación de la propuesta del interventor para la aprobación de diversos gastos.**

Ogasun eta ondare batzordeko irizpena aurkeztu da, onartua izan dadin:

Udal kontu-hartzailearen proposamenean bildutako gastua onartzea.

Se presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la comisión de Hacienda y patrimonio:

Proceder a la aprobación del gasto contenida en la propuesta de la intervención municipal.

A continuación se procede a votar el dictamen, el cual se aprueba por unanimidad.

A continuación se procede a votar el dictamen, el cual se aprueba por unanimidad.

**14.- Informazioa, galderak eta eskariak**

**14.- Información, ruegos y preguntas.**

a.- Kodigo Etikoa

Andoni zinegotziak zinegotzi guztiek kodigo etikoa sinatu duten galdetu du, eta udal-idazkariak erantzun dio EAJ-PNV taldeko zinegotzi guztiek sinatzear dutela.

a.- Compromiso ético

El concejal Andoni pregunta si todos los concejales han firmado el compromiso ético, a lo que la secretaria municipal le contesta que faltan por firmar todos los del grupo EAJ-PNV.

b.- Uholdeen laguntza

Andoni zinegotziak adierazi du uholdeak ekiditeko laguntzen oinarriak urrian aurkeztu zituztela eta gaia nola dagoen jakin nahi duela.

Alkateak erantzun dio ez dakiela, baina arkitekto teknikoarekin hitz egingo duela. Eta

b.- Ayuda para inundaciones

El concejal Andoni señala que en octubre presentaron las bases de las ayudas para las inundaciones, y pregunta como está el tema.

El alcalde le responde que no sabe, pero que hablará con el arquitecto técnico. A lo que el

Andoni zinegotziak komentatu dio, beraiek proposamen ireki bat aurkeztu zutela, eta gaia mugitzen hasten dira edo urtea joango dela.

concejal Andoni le dice que ellos presentaron una propuesta abierta, y que se empieza a mover el tema o va a pasar el año.

c.- Sukaldeak hornitzea

c.- Equipamiento de cocinas.

Andoni zinegotziak galdetu du kontratu honetan zer esleipen-prozedura erabiliko den, prozedura irekian ez baitziren eskaintzarik aurkeztu.

El concejal Andoni pregunta el tipo de procedimiento que se va a utilizar para este kontrato, dado que en el procedimietno abierto ha quedado desierto.

Alkateak erantzun dio arkitekto teknikoari bi enpresen izenak pasa dizkiola, horiekin harremanetan jartzeko. Eta udal-idazkariak azaldu du aurreko deialdian eskaintzarik aurkeztu ez zirenez, legeak publizitate gabeko prozedura negoziatuaren bidez esleitzea uzten duela; eta beraz, prozedura mota hori erabiliko dela, aurreko deialdiko epea bukatu ostean enpresaren batek esleipenean parte-hartzeko interesa azaldu baitzuen, baina gutxienez 3 empresa gonbidatuko direla. Eta bukatzeko adierazi du esleipena prozedura mota horren bidez egiteko aurreko baldintza-pleguetan aldaketa txikiren bat egin behar direla, baina funtsezko baldintzak ez direla aldatuko

El Alcalde le contesta que ya le ha pasado al arquitecto técnico el nombre de 2 empresas para que se ponga en contacto con ellas. Y la secretaría municipal explica que al haber quedado desierta la convocatoria la ley permite realizar la adjudicación mediante procedimiento negociado sin publicidad, y que se ha pensado en hacerlo así, ya que después de terminarse el plazo alguna empresa ha manifestado su interes en participar, y que mínimo se va a avisar a 3 empresas. Y para terminar señala que para dicho procedimiento únicamente hay que variar algún aspecto de los anteriores pliegos, pero no las condiciones esenciales.

d.- Txosna

d.- Txosna

EHBildukо kideek txosnaren inguruan erabakirik hartu den galdetu dute.

Los miembros de EHBIldu preguntan si se ha tomado algún acuerdo en relación con la Txosna.

Alkateak erantzun die Gazte Asanbladarekin harremanetan egon direla, eta leku berean mantentzeko konpromisioa dagoela, baina arazoak egonez gero, beste urte baterako kokapen berri bat aztertuko dela. Eta gaineratu du bertako kontzertuen ordutegia zehaztu eta murriztuko dela, eta oharra atarietan jarri.

El Alcalde les responde que se han puesto en contacto con Gazte Asanblada y que hay compromiso de mantenerla en el mismo emplazamiento, pero que si hay problemas, para otro año se cambiará de ubicación. Además, ha señalado que se va a concretar y reducir el horario de los conciertos, y poner bandos en los portales.

Ione zinegotziak ordutegia zehaztuta dagoen galdetu du eta baita, tabernen ordutegia berdina izango duten. Alkateak erantzun dio bai taberna bai txosna ordutegi berdina izango dutela, eta iazkoarekin alderatuz ordubete murriztuko dela. Eta Ione zinegotziak hori

La concejala Ione pregunta si se ha definido el horario, y también si va a ser el mismos que para los bares. El alcalde le responde que tanto los bares como la txosna van a tener el mismo horario, y que se va a reducir en una hora con respecto al año anterior. Y la

idatziz eta lehenbailehen jakinaraztea eskatu du.

concejala Ione pide que se les notifique eso cuanto antes y por escrito.

e.- Kiroldegiko obra

Andoni zinegotziak kiroldegiko obra esleitzeko kontratazioa mahaia noiz egingo den galdetu du. Eta udal-idazkariak argitu dio "B" gutun-azalaren txostena egitear dagoela, eta arkitekto teknikoa bukatu bezain pronto egingo dela. Hori bai, aurreratu du,esleipena uztaileko osoko bilkurara eramango dela.

e.- Obra del polideportivo

El concejal Andoni pregunta cuando se va a reunir la mesa de contratación para adjudicar las obras del polideportivo. La secretaría le aclara que todavía no está preparado el informe del sobre "B" y que tan pronto como lo termine el arquitecto técnico se hará la convocatoria. Pero adelanta que el tema se llevará al pleno de julio.

f.- Udalbiltzako informazioa

Andoni zinegotziak Udalbiltzako informazioa non eman behar duen galdetu du.

Bertaratuen artean gaia eztabaidatu ondoren, adostu da udal-idazkariari pasatzea eta horrek lehenengo Tokiko Gobernu Batzarrean edo Botzeramaila Batzordeko deialdian sartzea.

f.- Información de Udalbiltza

El concejal Andoni pregunta donde tiene que presentar la información sobre Udalbiltza.

Tras analizar el tema entre los presentes, se acuerda pasárselo a la secretaría, y que ésta lo incluya en el orden del día de la primera comisión de gobierno o de la junta de portavoces.

g.- Auzi-errekurtsoan berri ematea

Udal-idazkariak udalak Ederki enpresarekin zuen auzi-errekurtsoaren epaia eman dela jakinarazi du, eta argitu Ederki hirigintza-aprobetxamendua ordaintzera behartuta daude, baina ez bere eremutik at egin zituen obrak.

g.- Dar cuenta de los recursos contenciosos

La secretaria municipal informa que se ha dictado sentencia en el contencioso que tenían el Ayuntamiento y Ederki, y que la mercantil está obligada a abonar el 15% de aprovechamiento urbanístico, pero que en cambio no se tiene que hacer cargo de las obras ejecutadas fuera de la unidad.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarragan, 2016ko ekainaren 20an.

**Kontxi Urdampilleta Santamaría**
**Ordezko idazkaria**